



EUSKAL SINDIKATUA

langileekin, erantzuteko prest!

2010eko hauteskunde sindikalak

Abenduaren 1ean Euskotren-go langileei bozkatzeko deia egin digute. Atzera begiratzeko garaia da, eta azken lau urteotan egindako lanaren balantzea egiteko abagunea.

“Aurpegia ematen dugu”. Goiburu horren pean aurkeztu zen ELAren Atal Sindikala hauteskundeetara 2006ko azaroan. Aldi hartan ez genuen sumatzen Euskotren-go langileen alde aurpegia emateko konpromiso hark noraino probatuko gintuen.

Lau urte trinko eta gogorak izan dira, baina ELAko ordezkariok zegokigun eran jokatu dugula uste dugu. Euskotren-go sindikatu nagusia garenez, gure erantzukizuna onartu dugu uneoro, eta aurpegia eman dugu Zuzendaritzaren aurrean, gainerako sindikatuen aurrean, eta bertako langile guztien aurrean.

Gure atal sindikalak, aurretik izan dituen erroka handiei erantzuteko, berebiziko ahaleginak egin behar izan ditu. Horra hor, 2008-2010 Hitzarmen Kolektiboaren negoziazioa, Lezamako istripua, eta azken hilabeteotan bizi dugun egoera.

Negoiazteko eta erreibindikatzeko gaitasuna

Azken hitzarmen kolektiboak aurrerapen nabarmenak ekarri dizkie langileei, lan-baldintzei dagokienez. Negoziazioak denon agerian jarri zuen atal sindikalaren erreibindikazio-gaitasuna. Eta kontrakoa esaten duenik badago ere, datuak ikusgai daude. Irakurri besterik ez dago aurre-akordioan eta hitzarmenaren beraren testuan jasotako konpromisoak, eta aurreko urteetakoekin alderatzea. Harrigarria bada ere, hitzarmen txarra zela, eta zenbait puntutan legez kontrakoa ere bazela esaten zuten berberak orain betearazteko eskatzen dute, eta hitzarmena luzatzeari ondo deritzote.

Duintasuna eta begirunea

Lezamako istripua mugari bat izan zen ELAren atal sindikalaren ibilbidean. Zuzendaritzak Lezamako istripuan izan zuen erantzukizuna ezkutatu eta saihestu nahian ibili zen; baina guk, geure jokabidea zein izan behar zen erabat ziur geundenez, aurre egin genion Zuzendaritzari, eta ondorioz zigor gogorak ezarri zizkieten ELAko ordezkari, Zuzendaritzaren xantaiari men ez egiteagatik. Urtebete geroago, ez dira oraindik argitu istripuaren gaineko erantzukizunak. Baina guk ez dugu etsiko.

Ez dago esan beharrik aipaturiko zigor horiek ez direla nahikoak izan gure lana geldiarazteko. Alderantziz. ELAK bultzatu ditu enpresan orain arte piztu diren gatazka guztiak; eta bestaldean, Zuzendaritza egon da gehiengo sindikalarekin liskarretan hasteko beti prest.

Orduko irtenbiderik errazena zein zen argi zegoen, eta hala egin zuten CCOOko, UGTko ordezkariak eta LABeko ordezkari ohi batek: Zuzendaritzari men egitea. Baina ELArentzat elkarrenganako begirunea eta duintasun sindikala balore erabakigarriak dira, jarduera sindikala bide onetik joatea nahi bada.

ELAko ordezkariarentzat gertaera horren alderdirik saminena, lankide baten heriotzaz gain, UGTko ordezkari batek gezurrak esaten ikustea izan da, Batzordearen aurkako epaiketari, eta Zuzendaritzari mesede egitearren. CCOO eta UGTko ordezkariak bizkarra eman ziguten, horrela segurtasun-erlako akordioak lortuko zituztelakoan, azkenean lortu gabe geratu baziren ere; eta Zuzendaritzaren aurka erakutsi genuen irmotasuna arrazoi politiko hutsei leporatu zieten. Hura ere estualdia!

Ekinaren ekinez

Azken hilabeteotako lan-giroa bero-bero egon da. Azken urte honetan askotan kritikatu dugu ELAren Zuzendaritzaren kudeaketa. Eta ez da gutxiagorako izan. Batetik, zuzendaritza-postuak puzean zizuten, eta dirua ahurka xahutu; eta bestetik, Zuzendaritzak berak lotsagabekeria osoaz esaten zuen doikuntza-neurriak (langile-kopurua murriztu eta produktibitatea areagotu) hartu beharra zegoela, ekonomia-egoera larria baitzen.

Euskotren Zuzendaritzak adarra jo die bertako langileei, eta begirune eskasa erakutsi ordezkari sindikalei; hori zela-eta, aurre egin behar izan genien, eta gatazka bat antolatu. Sindikatuek ere badute horren erruaren apurren bat, oraingo organigramaren alde azalduz txeki zuria eman baitzieten Zuzendaritzari.

Orduko hartan hain txarto egin zuen Zuzendaritzak ezen Batzordean sindikatuek Euskotren-en egoraz emandako diagnostikoa aho batezkoa izan baitzen, eta bai Zuzendaritzak bai zenbait sindikatuk argudiatu izan dituzten aitzakia politikoak funtsik gabe geratu ziren.

Tamalez, batasun sindikalak ez zuen luzaroan iraun. CCOOek eta UGTk, mantenimenduko egitura-plantilla ziurtaturik izan gabe ere, lantegietako lankideak ahaztuz, eta Batzordean eta langileen batzarretan harturiko konpromisoa urratuz, mobilizazioak alde batera utzi zituzten, eta Zuzendaritzarekin bat egin zuten berriro.

Berriz ere gure Atal Sindikalak ekinaren ekinez lortu zuen Zuzendaritzak atzera egitea, enpresako egitura-plantilla osoa mantentzea idatziz onartzea, eta duela urtebetetik hona ito-puntuari egon diren hautaketa-prozesuak berriro abiatzea. Gogoan izan hautaketa-prozesuak 2008-2010 hitzarmenarekin batera abiatu zirela, baina Zuzendaritzak geldirik zituela.

Bestalde, eta autokritika eginez, aitortu behar dugu istripu horrek begiak ireki zizkigula, Zirkulazioko Segurtasun Batzordeari dagokionez. Izan ere, Zuzendaritza aipaturiko Batzordeaz baliatzen da, gure segurtasun-eskaerak bide bazerrean uzteko, hariak eta sindikatuak horretaz ahazten diren arte.

Segurtasun eta Lan Osasuneko Batzordean, eta baita Lan Arriskuen Prebentzioko Legeak esku ematen dien foroetan ere, etengabe eta irmo aurkeztu ditugu zirkulazio-segurtasuneko gaiak; baina Zuzendaritzaren geldotasuna ikusita, Lan Ikuskaritzara jo behar izan dugu gertaerak salatzeraz.

“ELArentzat elkarrenganako begirunea eta duintasun sindikala balore erabakigarriak dira, jarduera sindikala bide onetik joatea nahi bada”.





Indarra eta konpromisoa

Datozen lau urteak erabakigarriak izango dira Euskotren-en etorkizunerako. Izan ere, Euskotren-go plantillaren aldeko borrokak sindikalgintza sendoa eta engaiatua beharko du, gainera datozkigun arazoak ez baitira makalak: Material Mugigarriaren mantenimendua azpikontratatzeko aukera, Gipuzkoan errepidetik egiten den zerbitzuaren ustiakuntzaren geroa, Metro-Bilbao 3. linea galtzetik etor daitezkeen ondorioak, tranbiaren balizko privatizazioa, Gipuzkoako trenbide-proiektuak...


Bestalde, lau urteko epealdi horretan hitzarmenaren akordioak garatzen jarraitu nahi dugu (euskalduntze-plana, urteko egutegiak, geltoki-plana...), hurrengo hitzarmena negoziatzen hasi baino lehen. Gainera, eskubide ekonomikoak finkatu eta jaso beharko dira, eta gizarte-eskubideak zabaldu gaur egun eskatzen diren mailen neurrian (lan eta familia uztartu, lanaldia murriztu...)

Hauteskundeetan zure aukera ELA da. Zure botoaren bidez uste osoko ordezkariak hautatuko dituzu. Ordezkar horiek enpresa honetako zure lankideak dira, eta ez dizute huts egingo. ELA-Euskotren Atal Sindikala osatzen dugun lankideok gure lan eta zerbitzu osoa eskainiko dizuegu datozen lau urteetan. Behar den punturaino.

ELAk hauteskundeetarako aurkezten dituen zerrendetan enpresako arlo guztietako lankideen izenak ikusiko dituzu, horien ardura ez da besterik izango langileen eskubideak babestea baino.

ELAk, ekonomiaren eta politikaren aldetik, duen burujabetza bermea da Euskotren-go langileen aldeko hitza beteko dugula. Euskotren-go sindikatu guztiek ezin dute hori bera esan.

BOZKATU ELA!



Espezialista eta kualifikazio gabeak

GIPUZKOA

1. Mikel Zapirain Elizalde
2. Alfredo Mina Jolis
3. Jose Luis Golmaio Arnedo
4. Paco Barazal Valle
5. Jon Jauregi Iriondo
6. Iker Artola Lastra
7. Juan Miguel Aizpurua Galarraga
8. Antxon Almandoz Etxeberria
9. Gorka Puerto Gonzalez
10. J. Jose Arkarazo Barandiaran
11. Josune Arruti Arregi
12. Marta Costas Casado
13. Kerman Barbier Zabaleta
14. Ana Azkarraga Sagasta
15. Ramon Duran Gonzalez
16. Amaia Elizegi Yarzabal
17. Jose Luis Val Guerra
18. Rosa Garate Mangas
19. Imanol Etxeberria Barriola

BIZKAIA

1. Jon Karla Martin Blanco
2. Txema Negro Agromayor
3. Asier Elena Serna
4. Joseba Escobal Martin
5. Oskar Gonzalvo Ariño
6. Tomas Regulez Cornejo
7. Alex Erdoiza Lejarreta
8. Jose Luis Elexpuru Ibarra
9. Francisco Peña Marrodan
10. Jose Mari Lopez Ruiz
11. Iokin Menoio Aburruza
12. Kike Vazquez Ruizpoveda
13. Andoni Karrera De La Iglesia
14. Isusko Flores Uribe
15. Jorge Lata Gonzalez
16. Urko Uriarte Martin
17. Xabier Markina Bilbao
18. Ainhize Morondo Escauriaza
19. Vanesa Corrales Vaz
20. Kepa Jauregi Bikandi
21. Juan Cruz Gomez Zaballa
22. Miguel A. Maestre De La Fuente
23. Gonzalo Del Valle Allende
24. Marcos Alarcon Martin

ARABA

1. Igor Caridad Trancho
2. Luis Angel Garrido Piñero
3. Luis Ormazabal Leciñana
4. Goar Estrada Sastre
5. Patxi Lopez De Abetxuko Fdez. De Truchuelo
6. Igunda Bustinza Uriarte
7. Josu Alava Lopez
8. Iñaki Elexpuru Ibarra
9. Francisco Javier Arroyo Lopez
10. Sergio Valdezate Ortega
11. Zigor Egia Suances

“Zure lan eta bizi baldintzak duintzeko ELAren hautagaigoa duzu bermerik sendoena”.

Teknikari eta administrariak

GIPUZKOA

1. Alberto Zaldúa Gorostegi
2. Amaia Orbegozo Cigarán
3. Javi Lazkano Arrillaga
4. Eduardo Perez Perez

BIZKAIA

1. Miren Sorne Perez Escuza
2. Agustin Cantero Gabiola
3. Nerea Osorio Marin
4. Ernesto Caldevilla Hernando
5. Miguel Angel Sinovas Ciruelos
6. Patxi Barandiaran Andueza

ARABA

1. Cristina Muñoz Serna

BOZKATU ELA!



EUSKAL SINDIKATUA

langileekin, erantzuteko prest!

BOZKATU ELA!